

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

1892

AGINDUA, 2017ko apirilaren 6koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, 2015eko apirilaren 13ko zor publikoaren jaulkipenaren zenbatekoari hirurogeita hamabost milioi euro gehitzeko dena.

Urtarrilaren 31ko 37/2017 Dekretuak 2017ko ekitaldirako zorpetze-eragiketak egitea erabaki eta baimentzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2016ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrek luzapen modura onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legearen 10. artikuluaen 1. zenbakiak Gobernu Kontseiluari emandako baimenaren kontura, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen Araubideari buruz indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onartu zuen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuaren 128. artikuluaen e) letran ezarritakoarekin bat etorritz.

Dekretu horren xedapen gehigarriak xedatzen du ezen, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legean agindutakoekin bat etorritz, Ogasun eta Ekonomiako sailburuari dagokiola, agindu baten bidez, xedapen horretan erabaki eta baimendutako zorpetze-eragiketak egiteko tresnak eta modalitateak zehaztea, bai eta dekretu horretan jaulkipenari buruz aipatu ez diren finantza-baldintzak eta ezaugarriak zehaztea ere, dekretuaren aurreikuspenen barruan betiere. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baldin eta zor publikoa balore gisa jaulkitzen bada.

2015eko apirilaren 13ko Euskadiko Zor Publikoaren jaulkipenaren zenbatekoa handitzea erabaki da (2015eko urriaren 22ko eta azaroaren 12ko Aginduen bidez ere handitu zen), merkatuaren baldintzak aprobetxatzeko eta, halaber, kudeaketa errazteko, zenbatekoak lehendik zeuden zor-erreferentzietan elkartzuz.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Hirurogeita hamabost milioi (75.000.000) euro gehitzea 2015eko apirilaren 13ko zor publikoaren jaulkipenaren zenbatekoari, zeina Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2015eko martxoaren 25eko Aginduaren bidez baimendu baitzen. Agindu horren bidez, Euskadiko Zor Publikoaren 225.000.000 euroko jaulkipena egin zen, eta jaulkipen horren ezaugarriak ezarri ziren. Ondoren, 2015eko urriaren 22ko Aginduaren bidez, ehun milioi euro gehitu zitzaizkion 2015eko apirilaren 13ko zor publikoaren jaulkipenaren zenbatekoari, eta, 2015eko azaroaren 12ko Aginduaren bidez, beste ehun milioi euro gehitu zitzaizkion zenbateko horri.

2. artikulua.– Gehikuntzak honako ezaugarri hauek izango ditu:

- a) Zenbateko nominala: 75.000.000 euro.
- b) Jaulkipen-prozedura: kokapen pribatua.
- c) Ordainketa-data: 2017ko apirilaren 18a.
- d) Ordainketa-prezioa: % 102,331.

2017ko apirilaren 12a, asteazkena

e) Amortizazioaren prezioa, data eta interesak: ezarrita daude Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2015eko martxoaren 25eko Aginduan (agindu horren bidez, berrehun eta hogeita bost milioi euroko Euskadiko Zor Publikoa jaulki zen, eta eragiketa horren zenbait ezaugarri zehaztu ziren).

Gehikuntza horri dagozkion bonoek 2015eko martxoaren 25eko Aginduari jarraikiz jaulkitako bonoen eskubide berberak izango dituzte.

f) Baloreen adierazpidea: kontuko idatzoharrak.

g) Balio unitarioa: mila (1.000,00) euro.

h) Jaulkipenaren kotizazioa: Bilboko Burtsa.

3. artikulua.– Harpidetza.

Ogasun eta Ekonomia Sailak bideratuko du jaulkipeneko baloreen harpidetza, hain justu ere jaulkipena egiteko mandatua duen erakundearen edo erakundeen bitartez, betiere bat etorritz balore-merkatuaren indarreko araudiarekin.

4. artikulua.– Gaikuntza.

Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeari baimena ematen zaio zorpetze-eragiketa hau egiteko behar diren kontratuak eta gainerako dokumentu erantsi eta osagarriak sina ditzan.

5. artikulua.– Harpidetza, jaulkipenaren interesak eta amortizazioa Norbolsa, Sociedad de Valores, S.A. enpresaren bidez ordainduko ditu Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores, S.A. enpresak, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 38. artikuluan agindutakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 6a.

Ogasun eta Ekonomiako sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.